



### **2013KO UZTAILAREN 30EKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko uztailaren hogeita hamarreen, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Maialen Al-dasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Haizea Mendia Iztueta eta Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotziak ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

#### **I.- ESPAINIAKO BANDERA JARTZEARI BURUZ SENTENTZIAREN BERRI EMATEA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman eta esaten du Espainiako bandera Udaletxean jartzeari buruzko udal honek Estaduari daukan kontentziosoan Donostiako Administrazio-arekiko Auzietako 2. zbk.dun Epaitegiak emandako epaia jaso dela Udal honetan. Epai horrek dioenez, Espainiako bandera jarri beharko da bai Udaletxeko kanpokaldean bai pleno aretoan ere.

Estensoro zinegotziak (EAJ) galdetzen du ea zer jarrera hartzeko asmoa duen udal gobernuak honek aurrean.

Alkateak erantzuten dio gaurko puntua epaiaren berri ematearena dela eta hori aurrerago ikusi beharko dela.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

#### **II.- 2012KO KONTU OROKORRA.-**

2012 ekitaldiko Kontu Orokorra, Kontuetarako Batzorde Bereziak 2013ko uztailaren 1ean egindako bilkuran aztertu eta informatua izan zen.

Ondoren jendaurreko erakustaldian jarri zen, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean eta 2013ko uztailaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik. Jendaurrean egon den 15 lanegunetan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela eta Erakunde Lokaletako Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikulua dioena jarraiki, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 2012 ekitaldiko kontu orokorra onartu egiten du.



Kontu Orokor honek udalaren 2012ko Kontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkarte anonimoaren 2012ko urteko kontuak hartzen ditu barne.

### III.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 2 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespren proposamena irakurri dira.

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du abstenitu egingo direla eta hori, kreditu aldaketa honetako ikastolari teilatua konpontzeko dirua ematearena edo futbol zelaiko aldagelen inbertsioa bezalako kontzeptuekin ados baldin badaude ere, ikusten dutela orokorrean proiektuak ez daudela landuta eta inprobisatu egiten dela.

Serna zinegotziak (PSE) esaten du planteatzen diren kontzeptuekin ados egonik alde bozkatuko duela.

Gaia eztabaidatu ondoren botutara jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (Bildu, PSE), aurkako boturik gabe eta 5 abstentzioz (EAJ), honako hau

### **ERABAKI DU**

**Lehenik.**- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 2 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

### **KREDITU GEHIKUNTZAK**

<b>Kapituluak</b>	<b>Izena</b>	<b>Gehikuntzak</b>
I	Pertsonalaren gastuak	21.000,00 €
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	60.000,00 €
III	Finantza gastuak	33.000,00 €
IV	Transferentzia arruntak	40.000,00 €
VI	Inbertsio errealak	84.500,00 €
VIII	Finantza aktiboak	242.000,00 €
IX	Finantza pasiboak	0,05 €
<b>GEHIKUNTZAK GUZTIRA</b>		<b>480.500,05 €</b>





### FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VI VIII	Inbertsio errealeen besterentzea eta Finantza aktiboak	1.200,00 € 479.300,05 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>480.500,05 €</b>

**Bigarren.-** Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

#### IV.- EUSKO JAURLARITZA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ERREGISTRO IZATE-KO HITZARMENAK BERTAN BEHERA UZTEA.-

Goenaga zinegotziak, Ogasun Batzordearen presidente gisa esaten du Udal honek bi hitzarmen izenpetu zituen, bata Eusko Jaurlaritzarekin eta bestea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, udalak bi erakunde hauetara bidaltzeko dokumentuak jaso eta erregistro moduan funtziona zezan. Esaten du baita ere hitzarmen hauek izenpetzean asmoa lazkaotarrei zerbitzu hau ematea baldin bazen ere, inguruko herri guztietako jendea etortzen dela hona, beraien herrietan zerbitzu hau ematen ez dutelako. Eta honen aurrean hitzarmena etetea planteatzen dela.

Serna zinegotziak (PSE) esaten du aurka bozkatuko duela. Gaineratzen du arazoak baldin badaude konpondu egin behar direla eta ez zerbitzua eten.

Albisu zinegotziak (EAJ) esaten du aurka daudela baita ere, zeren beraiek leihatila bakarraren espirituaren aldekoak direla.

Alkateak etete hau planteatu izanaren azalpen zabalagoa ematen du.

Guzti honen aurrean, osoko bilkurak, aldeko 5 botu (Bildu) eta aurkako 6 botuz (EAJ, PSE), hitzarmenak bertan behera uzteari ezetza ematea erabakitzen du.

Une honetan Patxi Albisu zinegotzia irten egiten da aretotik.

#### V.- ITURGAITZAGAKO BIRIBILGUNE LANEN 10. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko errotonda lanen obra zuzendaritza daraman IKAUR, S.L.-ko Miguel Salaberria ingeniariak lanen 10. obra-egiaztagiria luzatu du. Lanen 10. obra-egiaztagiri honen zenbatekoa BERREHUN ETA HAMABOST MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU EURO ETA BERROGEITA HEMERETZI ZENTIMOTAKO (215.694,59 €) da. Lan hauek GORAIKI, A.E.B. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, eta obra honen finantzaketa dela eta, azaldutako zalantzen inguruko argibideak eman ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko errotonda lanen 10. obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

#### VI.- KANPANDEGIKO BIRIBILGUNE LANEN 7. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-Eko lanen obra zuzendaritza daraman Pedro Azkue ingeniariak, Pedro Izaskun arkitektoak eta Juan Murua arkitekto teknikoak lanen 7. obra-egiaztagiria luzatu dute. Lanen 7. obra-egiaztagiriaren zenbatekoa HIRUROGEITA BAT MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA HAMAR EURO ETA HAMALAU ZENTIMOTakoa (61.950,14 €) da. Lan hauek GORAIKI KANPANDEGI, A.E.B. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, "21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-ko lanen 7. obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

Une honetan Albisu zinegotzia bilkurara itzuli egiten da.

#### VII.- 2 HIRIGINTZA JARDUKETA AREA -IBABE-PINGON-KO 2.2 -AZKAR-, 2.3 -ARRUABARRENA- ETA 2.4 -IRIZAR FORGE- AZPIGUNEETAKO HIRI ORDENAMENDUKO PLAN BEREZIA.-

Tokiko Gobernu Batzarrak 2013ko otsailaren 1ean egindako bilkuran hartutako akordio bidez, 2 Hirigintza Jarduketa Area -Ibabe-Pingon-ko 2.2 -Azkar-, 2.3 -Arruabarrena- eta 2.4 -Irizar Forge- azpiguneetako hiri ordenamenduko Plan Bereziari hasierako onarpena eman zitzaion, txosten tekniko eta juridikoetan jarritako baldintzekin.

Txosten juridikoan jarritako baldintzetako batek zuzkidura jarduketan kategorizazioaren inguruko dokumentazioa ekartzearen beharrari buruzkoa zen, eta sustatzaileak ekarritako "Plan Bereziaren Dokumentu Osagarria"ren bidez egin zen. Dokumentu hau 2013ko urtarrilean datatuta zegoen.

Hasierako onarpenaren akordioa 2013ko otsailaren 28ko 41 zbk.dun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Espedienteari gehitu zaizkio Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituretako Zuzendaritza Orokorraren hala nola Ur Agentziaren aldeko txostenak.

Auzkeztutako bost alegazioetatik lau Hiribarren Kalea 22ko atzekaldeko pabilioietara jarbeenak ziren, eta alegazio hauek atzera erretiratu egin ziren.

Bosgarren alegazioa Plan Bereziaren sustatzailea den ORMAK CONSTRUCCIÓN S.L.U.k aurkeztutakoa da eta bertan ukitutako gunearen handitzearen beharra adierazten





da, eraikitakoak 16 metroko altuera hartzea baimenduz, eta hori produkzio beharrek eraginda, instalatzea aurreikusten den makinaria berriarengatik.

Dokumentuaren ekipo erredaktatzailean alegazio horren aldeko txostena egin du. Bere aldetik udal tekniko aholkulariek ere txostena egin duten eta bertan esaten dute 16,00 metroko altuera hartzen duen gunea berria hasieran aurreikusitakotik handitu egiten bada ere, gunea inguratzen duten espazio publikoekiko atzeratuta gelditzen dela, eta hori horrela, ikusmen ondorioetarako oso gutxi ikusiko dela.

Guzti hau horrela eta gaia aurrez Hirigintza Batzordean informatua izan ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

**Lehenengoa.-** ORMAK CONSTRUCCION S.L.U.k informazio publikoko denboraldian aurkeztutako alegazioa onartzea.

**Bigarrena.-** 2 Hirigintza Jarduketa Area -Ibabe-Pingon-ko 2.2 -Azkar-, 2.3 -Arruabarrena- eta 2.4 -Irizar Forge- azpiguneetako hiri ordenamenduko Plan Berezia, ondorengo baldintzekin, behin betikoz onartzea:

- Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 88 artikuluan xedatutako planen eraginkortasunaren kalterik gabe, bi hilabeteko gehienezko epean Tokiko Gobernu Batzarrak hasierakoz onartutakoaren aurreikuspenak, 2012ko urriaren 2ko udal arkitekto aholkulariak egindako txostenean jasotako zehaztapenak, 2013ko urtarrileko "Dokumentu Osagarria"n jasotako oharra hala nola onartutako alegazioaren ondoriozkoak jasoko dituen bategindako dokumentua aurkeztu beharko da.
- Plan Berezia arautzen duen gunean eraiki ahal izateko hirigintza lizentziak eman aurretik, espazio publikoetara bideratutako azalera, planeamenduak erabilera honetara sailkatutakoak, Udal Administrazioari eman beharko zaizkio dokumentu publikoan.

#### VIII.- ETXEKO LAGUNTZA PROGRAMAREN ESLEIPENA.-

Udal Osoko Bilkurak 2013ko maiatzaren 29an hartutako akordio bidez, Lazkaoko Etxeko Laguntza Programaren zeharkako kudeaketa ohiko prozedura irekiz eta lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Iragarkia 2013ko ekainaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Eskaintzak aurkezteko epean ondorengo enpresa hauek aurkeztu ziren:

- 1.- EULEN SOCIOSANITARIOS S.A.
- 2.- CLECE S.A.

Lizitaziora aurkeztutako bi enpresak A kartazaletan aurkeztutako dokumentazioaren azterketatik ondorioztatu da kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena betetzen dutela, eta biak onartuak izan dira.



Balio-judizio baten menpeko erizpideen balorazioa egiteko dokumentazioa jasotzen zuten B kartazalak 2013ko ekainaren 28an jendaurrean ireki ziren.

B kartazalak jasotzen zuten dokumentazioaren azterketa egin ondoren honako puntuak eman zitzaizen enpresei:

Enpresa	1. KUDEAKETA PROIEKTUA (gehienezko puntuaketa 49)			
	1. Atala	2. Atala	3. Atala	GUZTIRA
EULEN SOCIOSANITARIOS S.A.	20	16	6	42
CLECE S.A.	20	12	1	33

2013ko uztailaren 9an, goizeko bederatzia eta hamarrean, proposamen ekonomikoa zuten C kartazalak jendaurrean irekitzea egin zen. C Kartazalak ireki aurretik B kartazalen balorazioaren berri eman zen.

Enpresek aurkeztutako ekonomi proposamenek honako puntuaketa jaso zuten:

Enpresa	Proposamen ekonomikoa
EULEN SOCIOSANITARIOS S.A.	11,77
CLECE S.A.	23,75

Eta ondorioz guztizko puntuaketa honela gelditu da:

Enpresa	Kudeaketa proiektua	Proposamen ekonomikoa	GUZTIRAKO PUNTUAKETA
EULEN SOCIOSANITARIOS S.A.	42	11,77	53,77
CLECE S.A.	33	23,75	56,75

CLECE S.A.k, lehen sailkatu gisa, behin betiko fidantza jarri du eta baldintza pleguan finkatzen den dokumentazioa ere jarrita du.

Honen aurrean, kontratazio mahaiak, CLECE S.A. enpresaren aldeko esleipen proposamena egin du.

Guzti honen aurrean, eta lehen esandako guztiaz gain Gizarte Zerbitzuetako Bartzorde Informatzailearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, bertaratutako guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1. Lazkaoko Etxeko Laguntza Programaren esleipena CLECE S.A. enpresaren alde egitea.
2. Esleipen honen jakinarazpena prozedura irekian parte hartu duten enpresa guztiei egitea eta aldi berean udalaren kontratatzailearen profilean argitaratzea.

#### VIII.- BILERAREN AMAIERA.-



Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta hogeirenean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

A handwritten signature in blue ink, consisting of a large loop followed by a vertical line and a horizontal stroke.

